

48 ■ Arriaga antzokiaren ekoizpenak

» Berezko produkzioen alde egingo du Emilio Sagik, antzokiaren zuzendaritza kargua hartu berriak.



54-55 ■ Ken Follet Gasteizko katedralean

Santa Marian ikusitakoa erabiliko du idazleak 'The pillars of the earth' liburuaren bigarren atalean.



Erdi Aroko arkitektoen arbela

XIV. eta XVI. mendeko 158 idazkun topatu ditu Pablo Ozkariz historialariak Zarrakasteluko (Nafarroa) Olibako Monasterioan, eta liburu batean bildu eta argitaratu ditu.

ALBERTO BARANDIARAN
Iruñea

Ez dira teknikoki paregabeak, artelanean maila ere ez lukete, seguru asko, jaso. Baina arte eta historia liburuetan jasotzen ez den errealtate txikia erakusten dute. Erdi Aroko eliza eta komentuetan, orduko eraikinetan, egunero lan egiten zuten artisau, ofizial eta arduradunen jardunaren argazki txikiak dira, eguneroko marraztuak. Arkitektoa klaustrorako pentsatzen ari zen ikonografiari buruzko lehen marrazkiak, dudak eta erabakiak daude haien artean; edo langileei egin behar zuten lana grafikoki erakusteko arauak izan litezkeen ilustrazioak; elizaren beraren klaustrora altxatu edo paretak berritzeko proiektuaren beraren jarraipena egiteko arbela txikia, azken finean.

Pablo Ozkariz historialariak (Iruñea, 1975) Olibako Monasterioko (Zarrakastelu, Nafarroa) 158 grafito aztertu eta bildu ditu orain kaleratu berri duen liburu batean, *Grafitos de la iglesia del Monasterio de la Oliva* (Olibako Monasterioko elizaren grafitoak). Eta, bertan, deskubritzeko zain zeuden idazkun horien lekukotasun garrantzitsua bildu du.

«Grafitiak, berez, irauteko pentsatuta ez dauden inskripzioak

dira» azaldu du. «Horregatik hain zuzen ere, batzuetan xumeegiak ematen dute, inozo samarrak ere bai. Baina, hain zuzen ere horregatik, garai honetako beste ikuspegi bat eskaintzen digute, berehalako irudi bat, originalagoa, eta biziagoa».

IRUÑEKO KATEDRALEAN ERE BAI. Dena ustekabeen hasi zen, duela hamar urte. Pablo Ozkariz unibertsitate azterketak prestatzen ari zen, Olibako monasterioan erretriroa hartuta. Irakasle baten bidez, Iruñeko Katedralako klaustrorako Napoleonen garaiko idazki bat zegoela jakin zuen, eta bertatik bertara ikusi ahal izan zuen, bisita batean. Monasterioan, orduan, XIX. mendeko lekukotasunen bila hasi zen, enperadorearen armadak Olibakoa ikuitu gisa erabili zuela jakin bazekielako. Ustekabea izan zen Napoleonen garaiko ez, baina XIV. eta




XVI. mendeko idazkunak topatu zituela. Asko eta asko, bata bestearen gainean idatzita zeuden.

Bertan, irudiez gain, Erdi Aroko zaldunak agertzen dira, eta zaldiak, zakurrak, indioliarrek eta balizko herensugeak ere bai. «Batzuk haurrek eginak daudela ematen du, baina gehienetan marrazkia menperatzen zutela antzematen da», dio Ozkarizek. Esku asko, eta garai asko ere bai. Urte haieta

ko Gallipienzo izeneko abadearen irudia aurkitu du, eta oraindik haien esanahia argitu ez duen hainbat esaldi ere bai. Bat behintzat, latinez dago: *per gratia dei* (Jaunkoari esker).

Berez irauteko pentsatuta ez badaude, nola iritsi ote diren gaur arte, hori da zalantza nagusia. Ozkarizek azaldu duenez, idazkunak Olibako Monasterioaren elizaren eskuin aldean daude, epistolarena deitzen den aldean, kapera batean. Berez, elizaren inguru ilunenean. «Hor gordetzen da, hor bakarrik, XIV. mendeko jatorrizko gisua» adierazi du. «Gainera, urteetan, itxita egon zen. Horri esker iritsi dira gaur egun ere».

Mota honetako irudiak ez daude, bistan denez, Olibako Monasterioan bakarrik. Ikerketaren egilea bera Iruñeko katedralaren klaustrorako irudiak aztertzen ari da gaur egun, eta harrituta dago han agertzen ari denarekin. Baina benetako balioa aitortu eta lan sistemati-koa falta dela uste du Ozkarizek. «Elizetan, kapera askotan, gazteluetan edo utzitako eraikinetan aurki daitezke. Lehen, askotan, karez margotzen zutenean, beheko alde zuriagoa ikusten zen. Gero, iluntzen zenean, idazkunak agertzen ziren».



Idazkunetan, garai hartako irudiak eta ikonografia agertzen dira, askotan bata bestearen gainean zizelkatuta. Goikoetan, zaldunak eta animaliak, eta Nafarroako erregeek erabiltzen zuten arrano beltzaren itxurako irudi bat. BERRIA

Lehen urtean, 170 saioen bitartekari izan da Hamaika Bertute proiektua

ERREDAKZIOA
Donostia

2007ko urtarrilean sortu zenetik gaur arte, urtebetean, 170 bertso saiotik goraren antolakuntzan izan da bitartekari Hamaika Bertute proiektua. 30 bertsolariko zerrendarekin jarri zen martxan, eta egun 44 bertsolarik eta hiru gaitartzailek dute izena emanda. Orain arteko ibilbideak eman duenarekin pozik daude Hamaika Bertuteko kideak, eta lehen urtebetetzea festa batekin ospatuko dute etzi, Durangon.

«Hasieratik nabarmendu genuen proiektua irekia zela, eta hala da oraindik ere», adierazi dute Hamaika Bertuteko kideek. «Bertsotan fundamentuz egiten duen edonork hartu dezake parte proiektuan lan egiteko gogoz baldin badator».

Hamaika Bertuteko bertsolari eta gaitartzaileak «Euskal Herriko herrialde guztietakoak dira kasiko», azaldu dutenez. «Kide gehienak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak badira ere, taldean kide nafarrak, lapurtarrak eta arabarrak ere badira».

SAIO GEHIAGO IZATEKO LAGUNGARRI. 2007an bertso saio gehiago izateko lagungarri izan dira Hamaika Bertuteren sorrera eta hark egindako lana. «Antolatzaileei kontaktu bideak erraztu dizkio gure proiektuak eta asko animatu dira lehen aldiz bertso saio bat antolatzea. Utzita zeuden zenbait plaza berreskuratzea ere lortu dugu».

Saio gehienak Gipuzkoan izan dira, baina aurrerantzean beste lurraldeetara zabaltzeko asmoa dute. Euskal Herriatik kanpora ere irteten da aurtengo Hamaika Bertute: Bartzelonan, hango Euskal Etxearen eta hango euskaltzaleen saioetan parte hartzeko; eta Kuban, Euskal Etxeak antolatutako bertso saio batean parte hartzeko, Kubako dezimistekin harremanetan.

«Bertsolariek elkar ezagutu izana, talde dinamika bat sortu izana eta proiektu komun baten inguruan batzea izan da gure lorpen garrantzitsuenetarikoa», azaldu dute Hamaika Bertuteko kideek.

Hamaika Bertuteren webgunek proiektuaren inguruko informazio zabala eskaintzen du, www.hamaikabertute.net helbidean: *Agenda*, *Saiotako kronikak* eta *Asteko argazkia* dira webgunearen sailetako batzuk.